

# Hernanik Kronika

TOKIKOM 2013ko abenduaren 26a, osteguna ::: 4.595 zk. ::: www.kronika.net



## ❖ HITZALDIA 'Budy'ren hitzaldia ikusgai, interneten

Joxe Manuel Manzisidor Budyk hitzaldia eman zuen abenduaren 5ean Hernanin, eta ikusgai dago Kronikaren webgunean. Budyk garun paralisia dauka eta liburu bat idatzi du: *Garun paralisia daukat, baina ez nago gaxorik*. Budyren hitzaldiak ikasteko balio izan zuen. Momentu hunkigarriak eta komikoak bizitu ziren. ||

## Zakuak hustuta, Oindira bueltatu da Olentzero

Astearte arratsaldean iritsi zen Olentzero Hernanira, Kottonio astoa opariz karga-karga eginda. Pozarren hartu zuten umeek ikazkina eta oparixoren bat edo beste jasotzeko aukera ere izan zuten, etxeratu aurretik. Etxez etxe eta baserriz baserri ere ibili ziren beste asko.

OLENTZEROK banatu ditu banatu beharreko opari guztiak eta Oindira bueltatu da, datorren urtera arte. Astearte arratsaldean iritsi zen Hernaniko Plazara, Kottonio astoa opariz karga-karga eginda. Kale buelta egin ostean, udaletxeko arkupetan hartu zituen bertaratutako umeak. Eta aurreneko oparixoak jasotzeko aukera izan zuten. Olentzerok, berriz, muxuak.

Olentzerori behar bezalako ongi-etorria egiteko, kaleak eta herriko txokoak girotzen ere ibili ziren, gabon kanten doinura. Abesbatzek eta Musika Bandak izan zuten zeregin hori, besteak beste. Etxez etxe edo baserriz baserri ere ibili ziren beste asko: Bertso Eskolakoak, Osiñaga-koak, Ereñotzukoak... ||



Umeek gustora hartu zituzten Olentzeroren opari eta muxuak.



Eguraldiak ez zuen askorik lagundu goizean eta Urumea ikastolan egin zuten festa.

## ❖ ITURRITXO Haur Txokoa, gaur eta bihar

Iturritxo elkarteak Gabonetako Haur Txokoa antolatu du gaur eta bihar. Auzo elkartearen lokalean izango da, 10:30-13:00. ||

## ❖ SASKIBALDIA Teknifikazio saioak

Gazteentzako, saskibaloiko teknifikazio saioak izango dira gaur eta bihar Kiroldegian, 09:30etatik 13:30etara. Txandak ariko dira: 09:30-11:00, LHko 5-6 mailako neska eta mutilak, eta DBH 1-2 mailako mutilak. 10:45-12:15, DBH 1-2-3-4 mailako neska. 12:00-13:30, DBH 3-4 mailako mutilak. ||

## ❖ GIBELALDE Haurrentzako filma

Haurrentzako pelikula jarriko dute gaur Lizeagan. Gibelalde elkartearen egoitzan izango da (Laramendi 11); 17:00etan. ||

## ❖ ERREMONTA Jaialdia, gaur

Erremonte jaialdia izango da gaur Galarretan, 16:00etatik aurrera. Urriza-Olazar eta Ezkurra-lon neurtuko dira estelarrean. ||

## ❖ TAILERRAK Haurrentzako tailerrak, bihar

6-11 urteko haurrentzat tailerrak izango dira bihar udaletxeko arkupetan (16:30-18:30). ||



Osiñagako auzotarrak etxez etxe ibili ziren urtero bezala, gabon kantak abestuz. Argazkiko irudia, Lastaolan.

## GAZTE TXOKOA ETA KALE HEZITZAILEAK

# Ginkana egingo dute gaur, Hernanin barrena

10:30etan hasiko da Atsegindegina. 5 pertsonako taldetan eman behar da izena.

GAZTE Txokoak eta Kale Hezitzaileek ginkana antolatu dute gaur, Hernanin barrena. 11-16 urteko gazteentzat da.

10:30etan hasiko da Atsegindegina eta parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute 5 pertsonako taldetan.

Traspakarren festa, bihar Bihar, Trasfesta antolatu dute Traspakarren (parke botanikotik aurrera). 11:00etatik aurrera

izango dira, musika, mikro irekia, jolasak... 13:30etan, bazkaria antolatu dute eta 15:00etan, ginkanako sari banaketa. ||

**DORRONSORO**

OKINDEGIA

Orain bi tokitan aurkituko gaituzu:  
 ➔ **Lizeaga 4an.**  
 Ogia eta bolleria aukeran.  
 Ordutegia 07:15-14:00/17:00-21:00

➔ **Akarregi poligonoan,** obradore nagusia, denda eta kafetegia.  
 Ordutegia: 05:30-13:30/16:00-19:30

**JOSU ALKORTA**  
harategia

**JABUGORIK ONENA...  
BENETAKO JABUGOAI!**

Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

**tripontzi taberna**  
Sabemos castellano

**ARRAIN FREKKOAREKIN  
EGITEN DUGU LAN!**

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI  
943 555 724

**Brintza**

Lan-Aholkularitza -  
Fiskala -  
Aseguruak Inbertsioak -  
Zerbitzu Juridikoak -

www.brintza.com

Urbietza 15 - Hernani  
Tel.: 943 331 267 - Faxa: 943 330 892



**TELEFONOAK**

 ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622

 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037

 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103

 ● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

## BERTSOLATA

# Bertsoak, literaturak eta musikak bat egingo dute gaur, 'Kafkaren aulkian'

Andoni Egaña eta Uxue Alberdik prestatutako emanaldia da.

19:30etan izango da Biterin. Sarrerak bertan salgai, 6 euroan.

EMANALDI berezia prestatu dute gaur, Bertsolataren barruan. *Kafkaren aulkia* izeneko ikuskizunean, bat egingo dute bertsoak, literaturak, poesiak eta musikak. Andoni Egaña eta Uxue Alberdik prestatutako saioa da, Pello Ramirez musikariarekin batera. Saio bakoitzean, idazle bat gonbidatzen dute eta oraingoan, Jon Sarasua izango da tabladu gainean, bertsoa ondo ezagutzen duen idazlea.

Emanaldia 19:30etan izango da Biterin eta sarrerak momentuan bertan egongo dira salgai, 6 euroan.

**Hitza, emanaldiaren ardatza** *Kafkaren aulkia* emankizuna, ordu eta erdi inguruko jarduna izango da. Hitza izango da emanaldiaren ardatza: hitz idatzia eta kantatua, neurtua eta laua, bat batekoa eta pa-


**Andoni Egaña eta Uxue Alberdik ariko dira bertsoan.**

txadaz hausnartutakoa. Bi bertsolarien jarduna inprobisatua izango da eta Sarasua-ren errelatoan sartuko dira hark agindu ahala.

Sarasuak osatuko du

emankizunaren ardatz izango den errelato nagusia, berak aukeratutako genero, molde eta tonuan. Egañak eta Alberdik, pertsonaia literarioen ahotik eta euren ahots propiotik kantatuko dute.

### Jaialdi nagusian, txapelketako 6 bertsolari

Jaialdi nagusia, urtarrilaren 3an izango da, 19:30etan Biterin. Bertan, Txapelketa Nagusian aritu diren sei bertsolari kantatuko dute: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Unai Agirre, Unai Iturriaga, Iñaki Zelaia eta Jone Uria. Gai jartzaile lanetan, Agin Laburu ariko da. Sarrerak salgai daude Tri-pontzi, Aralar eta Kixkalen, 6 euroan.


Bestalde, Urtezaharreko errondak ez du hutsik egingo aurten ere. 18:00etan abiatuko dira Plazatik. ||

## ESKUBALDIA



**Ate ireki arrakastatsuak, 110 umerekin.** Eskubaloia probatu nahi duten 8-14 urteko gaztetxoentzat, ate irekiak antolatu ditu azken igandeetan, Eskubaloi Taldeak, eta oso arrakastatsuak izaten ari direla azaldu dute taldeko kideek. Azken igande honetan, 74 neska-mutilek hartu dute parte eta horietatik 30 berriak ziren. Denera, saio guztiak kontuan hartuta, 110 umek hartu dute parte. Azken jardunaldi honetan ere, eskubaloi munduko zenbait pertsonaia garrantzitsuren kolaborazioa izan dute: Nery Carla, Julian Eskide, Carlos Gude eta David Rodriguez. Azken saioa igande honetan izango da eta dei egiten diete ume eta gurasoei azaltzeko, eskubaloia ezagutzera. Oraingo honetan, garai bateko Hernaniko Eskubaloi Taldean, bai mutilenean bai neskenean, sekulako garrantzia izan zutenen kolaborazioa izango da. Hasteko, 10:00etan entrenamendua egingo dute beraien artean, Kiroldegiko 1go pistan, eta 11:15etatik aurrera, gaztetxoekin batera entrenatuko dute. Informazio gehiago nahi izanez gero: 669 845 896. ||

## EGURALDIA



**GAUR** Goiz partean, zaparradak botako ditu noiznahi, baina tarteka eguzkia ere ikusiko dugu. Egunaren bukaeran beste fronte bat iritsiko da, baina ez du ia euririk egingo. Min.4° / Max.10°.



**BIHAR** Eguraldiak hobera egingo du eta ez da euririk espero. Hegoaldeko haizeak zakar joko du. Temperaturak gora egingo du. Min.9° / Max.17°.

(euskalet)

## PORTU AUZOA

### 'Gartxot' pelikula gaur, eta masaje tailerra eta 'Apaxi' ipuin kontalaria, bihar

Portun, ekintza ugari antolatu dituzte Gabonetarako. Gaur, *Gartxot* pelikula emango dute 18:00etan. Bihar, berri, 0-2 urteko umeentzako masaje tailerra izango da 10:00etan eta *Apaxi* ipuin kontalaria 17:30etan. Guztia, auzo elkartearen lokalean. ||

## GERTAERAK

### Etxe bat desalojatu zuten astelehen gauean zuhaitz bat kable elektrikoetara erorita

Haizeteak ondorioak eragin zituen Hernanin. Besteak beste, astelehen gauean, 23:00ak aldera, Goizuetara doan bidean (Gi-3410), zuhaitz bat erori zen kable elektrikoetara eta ondorioz, karretera itxi zuten eta ondoko etxebizitza desalojatu. Arazoa 02:20ak alderako konpondu zuten, Ertzaintzak jakinarazi duenez. ||

## BERRIAK ETA KRONIKA - GABONETAKO ZOZKETA

### Falta diren bi saskien irabazleak agertzen ez badira, bihar berri, zozketa

Berriak eta Kronikak Gabonetako lau saski zozketatu dituzte. Bi saskiren irabazleak falta dira eta bihar agertzen ez badira, berri zozketatuko dira. Eta berri ere, baten bat banatu gabe geratuko balitz, urtarrilaren 3tik aurrera azken zozketa bat egingo litzateke, Kronikan entregatzen diren errifa guztien artean. Zerbaki sarituak honakoak izan dira: 3.276, 2.407, 1.584 eta 1.613. ||

## PRESO ETA IHESLARIAK

### Azken ostirala eta Martutenera martxa

Urteko azken ostirala da biharkoa eta urtero bezala, lau zutabe aterako dira herriko lau auzotatik. 20:00etan abiatuko dira Antziola, Etxeberri, Zikuñaga eta Portutik, eta Plaza Berrin bat egin ostean, Gudarien Plazarako bidea egingo dute elkarrekin. Bestalde, Martuteneko espetxera martxa antolatu da urtero bezala. Larunbatean izango da, *Sevilla* // SOS lemapean. ||

## PALA

### Ume eta helduentzat saioak, astelehenean

Hernaniko Pala Taldeak saioak antolatu ditu ume eta helduentzat, astelehenean. Tilosetako frontoian izango dira, goiz eta arratsalde, adinaren arabera: 10:00-11:00, 8-10 urtekoak; 11:00-12:00, 11-13 urtekoak; 13:00-14:00, 14-16 urtekoak; eta 16:00etatik aurrera, 17 urtetik gorako guztiak. Informazio gehiago: [hernanikopalistak@gmail.com](mailto:hernanikopalistak@gmail.com). ||

## PAUSOKA ELKARTEA

### Loteria kobratzeko aukera, astebete barru

Pausoka Elkarteak Gabonetako loteria saldu du eta tokatu egin da: 200 euro, dezimo bakoitzeko. Beraien loteria erosi dutenek urtarrilaren 2tik aurrera izango dute kobratzeko aukera, edozein Caixatan. ||

## KAXKO AUZO ELKARTEA

### Pili Lujanbioarentzat, Errioguardako otordua

Kaxko auzo elkarteak Gabonetako errifak saldu ditu eta Pili Lujanbio izan da irabazlea. Saritutako zenbakia: 2.745. Errioguardan lau lagunentzako asteburuko otordua tokatu zaio. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Etxe unifamiliarra salgai,** 160 m<sup>2</sup> + 250 m<sup>2</sup> lorategi + 90 m<sup>2</sup> terraza, trastelekua, txokoa, garajea, 2 solairu. Deitu: 699 49 22 35 (partikularra)

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)